

# **1go Gaia**

## **Legeria farmazeutikorako sarrera**

*Legeria eta Deontologia Farmazeutikoa*

## 1. EUROPAKO BATASUNA

- 1.1- Erakundeak
- 1.2- Erabakiak hartzeko prozesua
- 1.3- Europako Legeria

## 2. ESTATUKO LEGERIA

- Konstituzioa

## 3. LEGERIA AUTONOMIKOA

- Autonomi Estatutua

## 4. OINARRIZKO LEGERIA-KONTZEPTUAK

## 1.1- Erakundeak

- **Europako Kontseilua**
- **Legeria prestatzen parte hartzen duten erakundeak**
  - Komisia
  - Europar Batasuneko Kontseilua
  - Europako Parlamentua
- **Beste erakundeak**
  - Justizia Auzitegia
  - Kontu Auzitegia

## 1.1- Erakundeak

- **Europako Kontseilua (Consejo Europeo)**
  - EBko politika orokorraren norabidea zehazten du
  - Ez dauka legeak onartzeko gaitasunik
  - Partaideak:
    - Estatuetakoko Estatu-buruak, lehen ministroak
    - **Lehendakaria** (Herman Van Rompuy): gehiengo kualifikatuaz aukeratu (2,5 urte, gehienez behin berritu: 5 urte)
    - Komisioaren Lehendakaria (Jose Manuel Barroso)
    - Batasuneko Kanpo Arazoetarako eta Segurtasun Politikarako Ordezkarik Gorenak (Catherine Ashton)

## 1.1- Erakundeak

- **Komisioa** (Lege proposamenak Parlamentuari eta Kontseiluari)
  - EBko interesak ordezkatu eta defendatzen ditu
  - Lege proposamenak egiten ditu
  - Politikak praktikan jartzeko eta Europako fondoak erabiltzeko jarduerak kudeatzen ditu.
  - Lehendakaria. José Manuel Barroso
  - 27 comisarios

## 1.1- Erakundeak

### ➤ **Europar Batasuneko Kontseilua (Ministroen Kontseilua)**

- EBko estatuetako ministroak biltzeko foroa
- Funtzioak
  - EBko legeria onartu.
  - EBko estatuen politika ekonomiko ezberdinak koordinatu.
  - EB eta beste estatuen arteko akordioak sinatu.
  - EBko urteko aurrekontuak onartu.
  - EBko kanpo arazoetarako eta defentsarako politikak garatu.
  - Estatukideetako epaitegien eta polizien arteko kooperazio koordinatu

## 1.1- Erakundeak

### ➤ **Europar Batasuneko Kontseilua (Ministroen Kontseilua)**

- Lehendakaritza
  - Kanpo Arazoetarako Ministroen kontseilua ⇒ Lehendakari iraunkorra: Kanpo Arazoetarako eta Segurtasun Politikarako Ordezkarikari Gorena .
  - Beste gaiei buruzko bilerak ⇒ Momentu horretan EBko txandakako lehendakaritza duen estatuko ministroa.
- Lehendakaritza aldaketa: 6 hilean behin

## 1.1- Erakundeak

### ➤ **Europar Batasuneko Kontseilua (Ministroen Kontseilua)**

- Estatuetakoko ministroak: Estatuak ordezkatu. 10 kontseilu
  - Gai Orokorrak
  - Kanpo harremanak
  - Gai ekonomikoak eta finantzariak
  - Justizia eta barne arazoak (JAI)
  - Enplegua, Gizarte Politika, Osasuna eta Kontsumitzaileak
  - Lehiakortasuna
  - Garraioak, Telekomunikazioak eta Energia
  - Nekazaritza eta Arrantza
  - Ingurumena
  - Hezkuntza, Gazteria, Kultura eta Kirolak



## 1.1- Erakundeak

### ➤ **Europar Batasuneko Kontseilua (Ministroen Kontseilua)**

- Erabakiak hartzeko modua
  - Gehiengo kualifikatua:
    - Estatu bakoitak boto kopuru ezberdina du
  - 2014: Gehiengo bikoitza (Estatuen %55, Biztanlegoaren %65)
  - Aho-batez: gai batzuetan (segurtasuna, kanpo arazoak, zergak)

## 1.1- Erakundeak

### ➤ Europako Parlamentua

- Diputatuek (754) EBko 27 estatuen hiritarrak ordezkatzeko dituzte
- EBko hiritarrek aukeratzen dituzte 5 urtetan behin
- Parlamentua erakunde legegileetako bat da Europar Batasuneko Kontseiluarekin batera
- Lisboako Itunak gaitasun gehiago eman zion (gaitasun legegilea eta aurrekontuak prestatzeko)

## 1.1- Erakundeak

### ➤ Europako Parlamentua

- Funtzio nagusiak:
  - EBko legeria eztabaidatu eta onartu, Europar Batasuneko Kontseiluarekin batera
  - EBko beste erakunde batzuk kontrolatu, Komisia bereziki, funtzionamendu demokratikoa bermatzeko
  - Kontseiluarekin batera EBko aurrekontua eztabaidatu eta ezarri.
- Lehendakaria: Martin Schulz

## 1.1- Erakundeak

### ➤ **Justizia Auzitegia**

- Betebeharra: Estatu guztietan legeriaren ezarpena bermatu, interpretazio desegokiak ekidin
- Epaile bat estatukide bakoitzeko

### ➤ **Kontu Auzitegia**

- Zergadunetatik jasotako dirua behar bezala jaso eta erabiltzen dela bermatu
- EBko finantzak ikuskatzen ditu
  - Kudeaketa finantzieroa hobetu
  - Fondo publikoei emandako erabileraz informatu

## 1.2- Erabakiak hartzeko prozesua


- Orokorrean:
  - Komisioak proposatu
  - Parlamentuak eta EBko Kontseiluak onetsi
- Arlo bakoitzean jarraitu beharreko prozedura ezarria
- **Prozedura legegile arrunta**
  - Parlamentuak eta ministroen Kontseiluak berdintasunean aritu arlo askotan
  - Prozedura legegile nagusia

## 1.3- Europako legeria

- Konstituzio itunak (*Tratados constitutivos*), Lisboako Ituna
- Arautegia
  - Lotesleak (*vinculantes*)
    - Araudiak (*Reglamentos*)
    - Zuzentarauak (*Directivas*)
      - (Estatu mailako legeria, BOE)
    - Erabakiak (*Decisiones*)
      - Araudia, herrialde baterako
  - Lotesleak ez direnak (*no vinculantes*)
    - Gomendioak (*Recomendaciones*)
    - Irizpenak (*Dictámenes*)

Lege xedapenak (DOUEn argitaratu "Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala")

## Estatuaren botereak



## Estatuaren botereak

**BOTERE LEGEGILEA**

*Gorte Nagusiak (bi ganbera)*

*Diputatuen Kongresua (Behe ganbera)*

*Senatua (Goi ganbera)*



## Estatuaren botereak

### **BOTERE BETEARAZLEA**

#### ***Estatuaren administrazio orokorra***

Lehendakaria (Diputatuen Kongresuak aukeratua)  
Lehendakariordea(k)  
Ministroak

#### ***Autonomia Erkidegoetako Administrazioa***

#### ***Toki Administrazioa osatzen duten erakundeak***

## ARAUDIEN HIERARKIA MAILA

### **Konstituzioa** (Estatuko oinarrizko araua)

- Estatuko botereak egituratu, funtzioak ezarri
- Hiritarren eskubideak
- Estatuko lurraldeen egitura

### **Legea** (*Ley*) (*Gorte Nagusietatik*)

- Arrunta: 1/2+1 boto;
- Organikoa: 1/2+1 eserleku

### **Errege Lege Dekretua** (*Real Decreto-Ley*) (*Botere betearazletik*)

### **Errege Dekretua** (*Real Decreto*)

### **Ministro Agindua** (*Orden Ministerial*)

### **Ebazpenak** (Resoluciones)

Lege xedapenak (BOEn argitaratu "Estatuko Aldizkari Ofiziala")

## ARAUDI AUTONOMIKOEN HIERARKIA MAILA

- **Autonomi Estatutua**
- **Legea (Ley)**
- **Decreto (*Dekretua*)**
- **Agindua (*Orden*)**
- **Ebazpenak (Resoluciones)**
- **Zirkularrak**

Lege xedapenak

EHAAn argitaratu (“Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, BOPV”)

Maila handienekoak BOEn ere bai

## PRINTZIPIO NAGUSIAK

- Maila altuagoko xedapenak maila baxuagokoak baliogabetzen dituzte kontraesanean badaude. Maila berekoak ere aurrekoak baliogabetzen dituzte kontraesanak daudenean. (Konpetentziak)
- Xedapen batek ez du beste bat indargabetzen ez ba du zehazki adierazten, kontraesanak daudenean izan ezik.
- Maila baxuagoko xehazpen batek ezin du maila altuagoko bat ezeztatu, argitu edo arautu ordea bai.

**Zuzenbide Administratiboa:** Bakarkakoekin edo beste administrazio publikoekin dituen erlazioetan, Administrazio publikoaren funtzionamendua eta eskumenak arautzen dituen arau juridiko multzoa. Adb: Farmazia bulegoa irekitzeko betebeharrekoak, diru-laguntzak jasotzeko prozedura,...

**Zuzenbide Konstituzionala edo Z. Politikoa:** Estatuak definitzen duten oinarrizko legeen analisiaz arduratzen da (Estatuaren egitura, gobernu eredia, oinarrizko eskubideak, botere publikoen arautzea).

**Zuzenbide Penal:** Delituak, Estatuak delitugileei ezartzen dizkion zigorrak eta kriminalitatea aurrezaintzeko hartzen diren segurtasun neurriak jasotzen dituen arau multzoa.

**Lan Zuzenbidea:** Giza lan emankorra, askea eta inoren konturakoa denaren zaintza helburu duten arau juridikoak jasotzen dituen Zuzenbidearen adarra

**Zuzenbide zibila:** Bakarkakoen arteko erlazioak arautzen ditu, pertsonak fisikoak ala juridikoak izanik. Zuzenbidearen adarren artean gehien erabiltzen dena, honako erlazioak barne hartzen baititu: ondare erlazioak, pertsonalak, auzotasunekoak, familiakoak, ondoretasunezkoak...

**Merkataritzako Zuzenbidea:** Merkatarien jarduera eta euren arteko merkataritza erlazioak (merkataritza jarduerak) arautzen ditu

**Osasun-Zuzenbidea:** Osasun antolakuntzaren erregimen juridikoa jasotzen du, bereziki osasun sistema publikoa, osasun publikoko akzioak eta hiritarren erlazioak osasun sistemarekin eta osasun autoritatearekin

**Zuzenbide Farmazeutikoa:** Alde batetik sendagaien eta produktu farmazeutikoen arautegia jasotzen du, hauen merkaturatzea, erabilera eta finantzaketa; eta bestetik zerbitzu farmazeutikoen ordenazioa (batez ere farmazia bulegoak)

## Erantzukizun Administratiboa

- Osasun erantzukizun administratiboa: osasun sistema arautzen duten eta izaera administratiboa duten arautegi juridikoen arau-hausteengatik dator; hau da, legeen ala arautegien (adb: Errege Dekretuak) zaurzapenagatik
- Zigorak ez ditu epaile batek edo epaimahai batek ezartzen, baizik eta Administrazio Publikoak
- Zigorrik ohikoena isuna da, nahiz eta batzuetan bestelako zigorak ezartzen diren (establezimenduaren edo zerbitzuaren itxiera esaterako)



## Erantzukizun Zibila

- Kalteengatiko (fisikoak edo moralak) erantzukizuna
- Normalean diru kantitate bat ordaindu behar.

### **Zigor administratiboarekiko ezberdintasuna:**

- Zigor administratiboari dagokion multa Estatuari ordaintzen zaio
- Kalteengatiko ordaina kaltea jasan duen pertsonari ematen zaio

## Erantzukizun penala

- Erantzukizuna, lege penalean agertzen diren portaera aktiboengatik edo ez-egiteagatik dator, pertsona fisikoak nahita edo zuhurgabetasunagatik arriskuak edo kalteak sortu dituenean Zuzenbide penalagatik babestutako ondasunetan edo interesetan.
- Erantzukizun administratiboaren kasuan gertatzen den bezala, erantzukizun penalak, egindako ekintza arau juridiko batean (normalean Kode Penalean) arau-hauste penal bezala jasota egotea behar du (delituak kasu larrietan eta faltak hain larri ez direnetan)
- Erantzukizun penala, erantzukizun zibila ere berarekin ekartzen du
- Epaille penalak, dagokion zigorra ezartzeaz aparte, erabaki behar du zenbatekoa den erantzule penalak (pertsona fisikoa, osasun profesionala) edo erantzule zibil solidario bezala aritzen den erakundeak (Zerbitzuak eskaintzen dituen ospitalea, edo Administrazio Publikoa) biktimari ordaindu beharreko kalte-ordainketa zibila sortutako kalteengatik

## Erantzukizun penala

- Erantzukizun penala epaile batek ezarri behar du epai baten ondore, eta askatasuna murrizten dituen zigorrak ere ezar daitezke (kartzela zigorra)
- Erantzukizun penalaren kasuan kaltea pertsona konkretu bati/batzuei egotzi behar zaio/e
- Zuhurtasun faltagatik ematen den erantzukizun penala larria (delitua) edo arina (falta) izan daiteke
  - Falten kasuan ez dago kartzela zigorrik
  - Zuhurtasun falta larrien kasuan (bizitzaren aurkako edo pertsonen osotasunaren aurkako delituen kasuan zigor kartzela dute), zuhurgabetasun profesionala dagoenean kartzela zigorraz aparte, denbora jakin batez lanbidean aritzeko ezgaitasuna lortzea suposatzen du